

## INFORMAZIO ETA KOMUNIKABIDEEN TEKNOLOGI PLANA (IKT)

### 1. SARRERA

Azkenengo urteetan, informazio eta komunikabideen teknologiak (IKT), bizitzako arlo guztietara txertatzen badoaz ere, beraien benetako inbrikazioa askoz motelagoa izan da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan, eta are gehiago Musika Hezibidean. Hala ere, ikastegiak, irakaskuntza kalitatea hobetzeko asmoz, IKTok hezkuntza planean jasotako helburu orokorren parte diren aldetik, egoera berbideratzeko, zenbait zerbitzu eta baliabide berri ezarri ditu irakaskuntza praktikaren egunerokotasunean. Eskolaren erronka, bada, hezkuntza erkidegoaren sail osatzile guztiek – ikasle, irakasle, nahiz guraso- beraien eraginkortasunaz eta baliagarritasunaz jabetuz, baliabide hauei harrera ona egitea litzateke, beraien erabilpen erregular eta koordinatuaren bidez.

### 2. TESTUINGURUAREN KOKAPENA

#### 2.1 Aurretiazko zenbait kontsiderazio

- Musika eskolen irakaskuntza ezaugarri propioek, IKT plana definitzen dute, erregimen orokorretako irakaskuntzengandik bereizten direlarik nabari; ezaugarriok ikastegiaren IKT plana zehazten dute zuzenki, bai bere egituran baita bere edukin eta aurkezpenean ere.
- IKT-en formakuntza hezkuntza orokorrean irakasten denez (internet, posta elektronikoa, software informatikoaren erabilpena esaterako) Musika Eskolako helburuetatik at geratuko da; ikastegiko IKT plana hortaz, soilik bere hezkuntza egitasmoan jasotako formakuntza eta irakaskuntza helburu bereizgarri hutsetarako tresna horien erabilpenean zentratuko da.
- IKT hau, ikastegiaren esperientzian oinarritutako errealitatean eta egunean dauzkan baliabideetan eraikitzen da, baita erdi zein epe luzerako planteatu daitezkeen helburu berritzaileetan ere.

#### 2.2 Irakaskuntza eremua

Unanue Pedro Mari Musika Eskolako irakasleria azken urteotan, 16 bat irakaslez osatzen da. Ikastegiaren ezaugarriengatik, plantilla aldakorra izanik, eskolako IKT-on ezagupen eraginkor eta argia izan dezaten, irakasle berriek – kanpotarrak izanik nagusiki- komunikabide protokolo eraginkor baten bidez jarraibide zehatzak jasoko dituzte.

Ikasleria 200 lagun ingurukoa da. Beraiek dira IKT baliabideen onuradunak, bai ikasgai osagarrietan (musikala lengoia, abesbatza) baita ikasgai praktikoetan (instrumentua, kamara talde, banda edo orkestra).

IKTen integratze kurrikular egokiak, ikastegiaren baliabideen azterketa analitiko erreala (ezaugarriak / aukerak) eta beraien kurrikulum-azterketa (erabilerak/ gaitasunak/ trebetasunak) bat-egingo ditu. Era berean, online erreferente moduko web orrialde baten finkapenak zein sare sozialetan aritzeak, ikastegiko hezkuntza aukeren ugalketa suposatuko du.

### 2.3 Eremu administratiboa

Ikastegiaren gestio lanetan aspaldidanik erabiltzen dira IKT tresnak. Irakaskuntza erkidegoaren kide desberdinei informazioa ziurki eta bizkortasunez helarazteko tresna eraginkorrak gertatu dira.

“DRIVE” sistemarekin aritzen gara batipat: idazkaritzaren bitartez zuzendaritzaren komunikazio bide nagusia da, bai irakasleekin baita guraso zein ikasleekin, informazioaren transmisio eta partekatze baliabide ziur bezain azkarra, pribatutasun neurri guztiak bermatzen dituen.

IKTeen aplikazioa ikastegian etengabekoa eta iraunkorra da: Bilkura, dokumentu, akta zein agiri eta barne nahiz kanporako komunikazioek eta gainontzeko artxiboek transmisio bide hau darabilte. Mintegietako programazio didaktikoak eta esku artean darabilgun metodo guztiak ere digitalizaturik dauzkagu PDF formatuan DRIVEN bidez eskuragarri, edozein momentutan kontsulta daitezkelarik.

Horrez gain, ikastegiaren hezkuntza plana IHP (Ikastegiko Hezkuntza Plana), bai kurrikulu egitasmoa (IPK ikastegiko plan kurrikularra) nahiz AJA (Antolakuntza eta Jarduera Arautegia) agiriak barnebiltzen dituen web orrialde bat ari gara lantzen, epe motzean eta internet bidez kontsultagarri egongo dena. Azkenez, gainontzeko eskari, inprimaki eta formulario ezberdinen plantillak ere digitalizatuta dauzkagu PDF formatuan interesatuen eskura.

## 3. IKT PLANAREN HELBURU OROKORRAK

### 3.1 Integratze kurrikularrari dagokionez.

- Ikastegiko irakaskuntzaren praktika erregularrean IKTak pixkanaka bertakotu, beraien erabiltzaileen artean azal daitezkeen arazo teknologikoak gainditzeko bideak bilatuz.
- Formakuntza eta tutoretza prozesuetan tresna hauen erabilpena sustatu jasotzaileen artean: ikasle, guraso, irakasle zein administrazio eta zerbitzuetan.
- Ikastegiko irakaskuntza erkidegoari, Ikastegiak dituen IKT baliabiden erabilera erraztu.
- Ikasleen erabilerarako interesgarriak eta erabilgarriak diren IKTen formakuntza eman.
- Irakaskuntza prozesua errazten duen IKT estrategia eraginkorrak diseinatu.
- Era praktikoa, erraz eta gertutasunezkoan erabil dezaten, IKTen ezaguera-giro bat sortarazi irakaskuntza erkidegoaren kideen artean.

### 3.2 Azpiegitura eta ekipamenduari buruzkoak.

- Ikastegia informazio-lanketa ekipuz eta IKTen erabilpen osoa ahalbidetzen duten baliabide teknikoez hornitu.
- Ikastegiko ekipoen oinarrizko funtzionamenduari eta zerbitzu digitalen erabilera egoki eta eraginkorrari buruzko formakuntza eman IKTen erabiltzaileei.
- Ikastegiko baliabide digitalen erabilpena sustatu, beraingana heltzea erraztuko duen estrategia antolatzaileen bidez.
- Ikastegiko IKT tresnen eta zerbitzuetan sortu litezkeen arazoak lehebailehen antzeman, era bizkor eta eraginkorrean zuzentzeko.

### 3.3 Irakasleriaren formakuntzari dagokionez.

- Ikastegiko irakasleen artean IKTen arlo askotariko erabileraren interesa sustatu, haien lanerako erabilgarri eta lagungarri gerta dadin.
- IKTen zerbitzu eta tresnen erabilerako irakaslegoaren arteko esperientzien elkartrukea sustatu.
- Irakasle guztiei, batez ere hasi berriei, informazio argi eta zehatza eman ikastegiko IKTen ekipu eta zerbitzuei buruz.
- Irakasleei, ikastegiaren gaitasunen neurrian, hezkuntza arloan IKTen erabilpenari buruzko formakuntza ikastaroak eta jardunak erraztu.

### 3.4 Erakundearen arteko harreman eta elkarrekintzari buruz.

- Musika eskolako IKTen irudi korporatiboa eta zerbitzu katalogoa egokitu garaiko bere inguruaren garapen teknologikoari.
- IKT tresnak Ikastegiak arlo ezberdinetan garatzen duen jardunaren ideario orokorrari gehitu, baliabide digitaletan erakundearen presentzia finkatu dadin.
- Hezkuntzan IKTei buruzko integratze ekimenak sustatzen dituzten erakunde, enpresa eta entitateekin harremanetan egon, ikastegiko baliabide, tresna eta formakuntzaren hobekuntzarako direnean.
- Ikastegiak dituen IKTen erabilera sustatu, beste zenbait erakundeekin dauzkan harreman ofizialak arinak eta eraginkorrak izan daitezen.
- IKTetan oinarritutako komunikazio mekanismoen ezarpena eta dokumentuen bidalketa faboratu, giza errekurtsoen eta baliabide materialen optimizaziorako.

### 3.5 Ikastegiaren gestio eta antolakuntzari dagokionez.

- Sareetako sarrerara zein hauei konektatuta dauden ekipoei segurtasuna bermatu.
- Ikastegiko IKT tresnen sarrerarako maila ezberdinak zehaztu, erabiltzailearen profilaren arabera.
- Ikastegiak dauzkan gune birtualetara sarrera erraztu, behar diren ziurtasun neurriak beteaz.
- Indarrean dagoen legezko araudiak ezarritako gidalerroak bete, informazioaren konfidentzialtasuna, Norberaren Datuen Babesa, Datuen Arautegi Orokorraren zein Jabetza Intelektualaren Legeari dagokionez.

## 4. AZPIEGITURA ETA HORNIKUNTZA: SARE ETA ONLINE BIDEAK.

Ikastegiak 600 Mb eko abiadurako konexio WiFia dauka. Bertara, irakaslegoa eta ikastegiko langileak konekta daitezke soilik.

Zentruak, fotokopiadora bat dauka, zuzendaritza eta idazkaritzako ordenagailuekin sarean konektatuta. Fotokopiagailu honek, kopiak, eskaner eta impresora zerbitzua ematen ditu, eta irakasle bakoitzak bere kontraseña dauka erabiltzeko.

### 4.1 Internet zerbitzua

Ikastegiak daukan WiFi sarea, Udalak kudeatzen du.

Musika eskola web orrialde bat lantzen ari da, eta momentu honetan dituen web tresnarik garrantzitsuena, DRIVE da. Sare sozialetan parte hartzen du, eta informazioaren konfidentzialtasuna, Norberaren Datuen Babesa, Datuen Arautegi Orokorraren zein Jabetza Intelektualaren Legearen aurrean babestuta egoteko, “Conversia” enpresarekin dauka segurua.

Gaur egun, honako dokumentu guztiak bete daitezke, besteak beste, online zerbitzuan:

- Matrikulazioa: altak, bajak, aldaketak, ...
- Eskaera orokorrak.
- Tutoretza eta gurasoen arretarako hitzorduen eskaerak.
- Ziurtagirien eskaerak.
- Ordutegi aldaketen eskaerak.
- Entzunaldiak sare sozialetan jarraitu daitezke: Facebook, Instagram. Gurasoei esteka bidaltzen zaie. Bertan, matrikulazio epeak, musika eskolako berriak, kontzertuak, ikastaroak,... eskegitzen dira.

- Aurten, COVID-19 aren eraginez, klaustroak, mintegiak, eta batzarrak, online eta semi-presentzialak izan dira, jitsi eta skypen bidez.
- Irakaslegoaren ekintzen eta ikasturteko balorazio orriak.

#### 4.2 Liburutegia

Aurten, liburutegi birtuala egiten hasi gara DRIVEN. Bertan, irakasle bakoitzaren maila bakoitzeko metodoak pdf formatuan daude, obrak, kontzertuak, ... edozein momentutan eskuragarri.

#### 4.3 Posta elektronikoa

Ikastegiak egiten dituen deialdi guztiak, posta elektronikoaren bitartez egiten ditu: klaustroak, mintegiak, Eskola Kontseilua, Batzordea, Baguz Musika elkarte...

Gai ordenak eta aktak bidaltzeko ere, tresna hau darabilgu.

### 5. AZPIEGITURA ETA HORNIKUNTZA: HARDWARE ETA SOFTWARE.

#### 5.1 Ikaslegoaren ekipamendua.

Ikaslegoaren profila, Musika eskolentzako gai honi buruzko plan ezak eta ikastegiak eskeinitako irakaskuntza ikusirik, ikasleriak ez du bakarkako ekipamendurik.

#### 5.2 Gelen ekipamenduak

Ikastegiak tableta, ordenagailu portatil bat, mikro grabadora digitala (Zoom H2) eta soinu ekipoa ditu irakasle eta ikasleek erabili ditzaten. Gela bakoitzean CD erreproduktore bat dago.

#### 5.3 Areto Nagusiko ekipamendua

Ikastegiko Areto Nagusian soinu ekipoa daukagu, bozgorailu eskegiekin, entzunaldietan eta entsaiuetan musika entzuteko eta talde/bakarkako laguntzak CDarekin erabiltzeko.

#### 5.4 Administrazioko ekipamendua

Idazkaritzako bulegoak mahai gaineko ordenagailu bat dauka fotokopiagailuarekin sarean. Instalatuta dituen programen lizentzia guztiak, Ondarroako Udalak erosi eta kudeatzen ditu.

Zuzendaritza eta ikasketaburuko bulegoko mahai gaineko ordenagailuak, idazkaritzakoarekin eta fotokopiagailuarekin konektatuta daude sarean. Fotokopiagailua, gainera, impresora eta eskaner moduan erabiltzen da. Bulego honetan, telekomunikazio rack-a eta routerrak daude instalatuta.

Bulego honen ordenagailutik, Baguz Musika elkartearen lehendakariak, lehendakari ordeak, idazkariak eta diruzainak, kudeaketa guztiak egiten dituzte: IRPF, Nominen ordainketak, Eusko Jaurlaritzarekiko dokumentuak,...

## 6. IKT-EEN KOORDINAZIO ETA ZABALKUNDEA, EBALUAKETA ETA MARTXAN JARTZEA

### 6.1 IKT komisioa

IKT planaren betearazpen eta segimendua errazteko batzorde bat eratuko da, honako pertsonalaz osatuko delarik:

- Zuzendaria
- Ikastegiko idazkaria
- Zuzendaritzak kargu horretarako espreski izendatutako irakasle bat.
- Bere profil aproposagatik plan honetara ekarpen esanguratsuak egin ditzakeen beste kideren baten barnebiltzea ere kontenplatzen da.

### 6.2 Prozesua eta ebaluaketa

IKT plana ikasturtez-ikasturte pixkanaka ikastegiaren eguneroko funtzionamendu arruntan inkorporatzen eta aplikatzen joan garen teknologi eta baliabide berrien erabilpenaren emaitza logikoa da.

Eskola Kontseiluaren oneritzia jaso ostean, IKT plana Plangintza Kurrikularraz eta Antolakuntza eta Jarduera Araudiarekin batera, ikastegiko dokumentazio instituzionalaren parte izango da.

Eboluzio iraunkordun dokumentua izanik, aurrerabide eta ekarpen berritzaile guztiei egongo da zabalik.

Horrez gain, IKT plana, erregularitasunez, kanpo nahiz barne ebaluaketari lotuta egongo da, bere ezarpen zuzenerako beharrezko diren moldaketak faboratuz.

Azkenik, plana dinamizatzea helburu, ikastegiko IKT zerbitzuen hedapen mekanismoen diseinatzea ahalbideratzen duen marketing estrategiak aztertuko dira, era erakargarri eta erabilgarri batez erakustera emanik, hezkuntza erkidegoaren interesa piztaraziz.

## 7. INTEGRATZE KURRIKULARRA

### 7.1 IKTen erabilpena irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan

Ikastegiaren egungo eskeintza kurrikularrean IKTen ezagupen/erabileraz aritzen diren ikasgai zehatzak ez daude kontenplaturik zoritxarrez. Hauexek lirateke hutsune honen arrazoi nagusiak:

- Ikaslearen profila vs hezkuntza planaren antolaketa
- Ikasgaien izaera nabarmen desberdina vs irakasleen arlo honekiko formakuntza desberdina.
- Ikastegiko baliabideen urritasuna.

7.1.1. IKT eduki kurrikular espezifikoak dauzkaten ikasgaiak.

Ikastegiaren egungo eskeintza kurrikularrean IKTen erabilera espezifikoaz diharduten ikasgai zehatzak ez daude kontenplaturik. Ikasketa plangintzaren hutsune honen zergaitia ikaslearen profilean zein hezkuntza planaren muinean datza.

#### 7.1.1.1. Ikaslearen profila vs hezkuntza planaren antolaketa.

Ikastegiko egungo hezkuntza planeko maila nagusiak, 2.a eta 3.a dira. Egun, 2. Maila hau, 6 ikasturtez dago osatua, lehen laurak derrigorrezkoak kontsideratzen direlarik praktika instrumentalean jarraitzekotan. Lehen lau ikasturte hauetariko ikasleek (8-12 urte) ikastegiko gehiengoa osatzen dute, eta ikasaldi honen burutzean etetzen dituzte ikasketak. Ikasle hauen adin eta gaitasun kognitiboa medio, ez dirudi sasoirik proposena IKTak suposatzen duten konplexutasunetan aritzeko. Adin hortatik aurrera ordea, beraien gaitasun kognitiboa garatzen doan heinean, baliabide hauekiko interesa eta eskaera nagusitzen diren neurrian, bidezkoa letorke eduki hauek eskeintza kurrikularrean barnebiltzea irakaskuntza praktikan. Ikasketekin jarraitzea erabakitzen duten ikasleek bi aukera nagusi dituzte aurrerantzean:

1. Praktika instrumental soilean aritzea (bakarka, nahiz taldean).
2. Bigarren mailako azken 2 ikasturteak osotasunean kurtsatzea (praktika instrumentala, musika lengoaia eta abesbatza).

Bata zein bestea lirateke ikas prozesuaren unerik egokiena IKTen ikasketa abordatzeko, ikasgai hauei dagozkien ikas denbora zehatza asignatuz eta ikastegiaren eskaintza kurrikularrean barnebilduz.

#### 7.1.2 IKTen erabilpena gainontzeko ikasgaietan.

IKTen erabilpena nahiko irregularra da beste ikasgaietan, arrazoi hauek nabarmentzen direlarik:

- Formakuntza instrumentalean zein ahozkoan tradizionalki erabili izan diren heziketa prozedurak, kasu gehienetan, eraginkorrak gertatu dira, IKTen aplikazioa ondorioz urria izan delarik ia gaur arte (musika lengoaia, abesbatza eta praktika instrumentalean esaterako). Hala ere, azken bi ikasturteotan, COVID-19 aren eraginez sortutako ez ohiko egoera hontan, ezinbestez, IKTon erabilpena gogoangarria izan da ikasgai hauetan, batez ere bakarkako klase instrumentaletan, baliabide erabakigarriak gertatu direlarik.
- Ikasgaien izaera nabarmen desberdina. IKTok askoz eraginkorragoak gertatu dira bakarkako klaseetan klase kolektiboetan baino, emaitz nahiko desberdinak jaso direlarik erabilitako prozedura zehatzaren arabera (online, posta elektronikoz, edo eta grabaketa bidez esaterako).
- Irakasleen formakuntza desberdina gaiarekiko. IKTon erabilpenerako beharrezkoa den metodologia eta formakuntza ez daude behar beste egituratuta batetik, eta bestetik ikasarlo desberdinen berezitasun eta interes singularrek, sarritan irakasleak ekimen partikularrez aritzea eragin dute, IKTon aplikazio errealean beraien ezagutza eta abilezia pertsonalaz jokatzuz.

- Ikastegiko baliabideen urritasuna. Ikastegia administraritza lanetarako ondo hornituta badago ere, ez ordea bere irakas lanerako, IKT baliabideen hornikuntza urria edo eta oso urria delarik inondik-inora. Irakasleak, sarritan, eguneroko jardunerako oinarritzko errekurtsio ezaz jabeturik, beraien baliabide propioez dihardute hein handi batean.

Plan hau bultzatzeko, bada, beharrezkotzat jotzen dugu ikasgelen egokitzapena sustatzea, IKT ekipoen bitartez dokumentu, partitura eta bideoak ikus-entzutea ahalbideratuz; online baliabideen bidez lanegiteko, arbel digitalak eta tabletak erabiliz, klase orduak arinduz eta beraien etekina nabarmen gehituz.

## 8. FAMILIEN ETA ERAKUNDEAREN KOMUNIKAZIO INGURUNEA

### 8.1 Web orrialdea

Ikastegia gordailu orokor gisa jardungo duen web orrialde bat ari da lantzen. Kontsulta gune horretan, atalez atal, hezkuntza erkidegoak nahiz herritarrak orohar, ikastegiaren jardun orokorrari buruzko informazioa aurki dezakete: zuzendaritzako/idazkaritzako berriak, hezkuntza planaren antolaketa (I.H.P.), ikasgaien eskeintza, ikastaroak; A.J.A. (Antolakuntza eta Jarduera Arautegia), T.E.P. (Tutoretzarako Ekintza Plana), Bizikidetzeta plana, IKT plana (Informazio eta Komunikabideen Teknologia plana), ordutegiak, emanaldia eta ekintzak eta hauen argazkiak eta grabaketak; horrez gain lehenago aipatutako inprimakiak ere eskuragarri egongo dira.

### 8.2 Sarrera pribatua irakasleentzat

DRIVE sistemaren bidez, irakasle bakoitzaren karpeta partekatzen da, soilik berarekin partekatutako karpeta ireki dezakelarik. Karpeta honen barruan, hurrengo dokumentuak egongo dira:

- Boletinak.
- Ikasle bakoitzaren txostenak.
- Zerrenda desberdinak.
- Egutegia eta ikasturteko plangintza.
- Mintegi eta klaustroetako gai ordenak eta aktak, ...
- Antolakuntza orokorrari dagokion beste agiri eta komunikazioak.

### 8.3 Matrikula

Matrikulazioari buruzko informazioa -ikasgai multzoa, aukerak, tasen zenbatekoa (deskontuak), epeak- posta elektronikoaren bidez kontsultatu daiteke.

### 8.4 Sarrera eta irteerarako erregistroa

Ikastegiak kontratatutako “Conversia” seguruak, ordu erregistroa, mugikorrean instalatutako app baten bidez egiteko aukera eskaintzen digu.

### 8.5 Inbentarioa

DRIVEN bidez partekatutako taula baten bidez, irakasle bakoitzaren inbentarioa jasotzen da, ikasturtero berrikusten delarik.

#### 8.6 Gestio ekonomikoa

Baguz Musika elkarteak, Office programaren baliabideak erabiltzen ditu kudeaketa egiteko.

#### 8.7 Aktak eta dokumentazioa. Dokumentu sorkuntzarako tresna informatikoak.

Ikastegiko organo guztien aktak – Klaustroa, Eskola Kontseilua, Departamentu didaktikoak (mintegiak) – formato digitalean bideratzen dira, eta PDF plantilletan antolatu, ondoren indarrean dagoen normatibarekin bat, inprimatu, sinatu eta sigilua jarritz.

Beste departamentu batzuetan, “I love PDF” bihurtzailea erabiltzen da. Tresna honek PDF artxiboak WORD era, JPG ra edo eta alderantziz.

#### 8.8. Mezularitza mugikorraren bidez

Ikastegiak posta elektronikoa darabil. Posta elektronikoaz gain, irakasleek mezularitza erabiltzen dute mugikorraren bidez, hain zuzen ere, whatsapp-a. App honek, bai mugikorretik bai ordenagailutik informazioa, dokumentuak eta artxiboak partekatzeko eta zabaltzeko aukera ematen digu, komunikatzeko era bizkorra eta eraginkorra delarik.

### 9. BALIABIDE MATERIALEN ANTOLAKUNTZA

#### 9.1 Inbentarioa, ekipoen mantentzea eta birziklaketa

Ikastegiko gainontzeko baliabide materialen moduan, IKT baliabideen inbentarioa eginda dago, aurrerago aipatutako tresnen bidez. Ekipo bakoitza marka, modelo eta serie zenbakiaz jasota dago. Inbentarioak item bakoitzaren kokapena ere azaltzen du, eta urtero berrikusi eta eguneratzen da ikasturte hasieran.

Ekipo informatikoen mantenuaz eta birziklaketa Udala arduratzen da. Ikastegiak edozein berritze edo aldaketa inbentarioan eguneratzen du.

#### 9.2 Erabilera eta inzidentzien kudeaketa protokoloa

Datu Pertsonalen Babeserako Legearekin bat, ikasleen datu pertsonalik ez da publikatuko, ez sare sozialetan ezta ere gainontzeko baliabide informatikoetan; hauetara jotzeko soilik kontraseña bidez egingo da, ahalmen hau bakar-bakarrik Zuzendaritzak eta Idazkaritzak izango dutelarik.

Gainontzeko IKT ekipu eta zerbitzuen erabilera protokoloa, A.J.A.n jasota dago. Materialaren eskaera idazkaritzatik bideratzen da Zuzendaritzaren oniritziarekin; biok dira hain zuzen, zerbitzuon erabilera zuzenaren erantzule.

Klaustro, Eskola Kontseilu nahiz Baguz Musika elkarteko batzarren grabaketa digitalak, Zuzendaritzaren eta elkartearen esku geratzen dira eskusiboki: beroien eskumenean grabaketon artxibatzea, baita ezabaketa ere, hurrengo erabilpenerako prest egon daitezzen.

WiFi sarearen konfigurazioaren egonkortasuna bermatzeko, telekomunikabide rack-a eta routerreko sarrera mugatuta dago eskusiboki Udaleko informatikoari eta ikastegiko Zuzendaritzari.

Ikastegiko IKT sistemen edozein erabiltzailek arazoren bat antzemango balu, idazkaritza zein Zuzendaritza ohartaraziko du, hauek sistema hauen arduraduna jakinaraziko dutelarik berehalaxe.

## 10. IRAKASLERIAREN FORMAKUNTZA

10.1 Irakasleriari zuzendutako harrera, integratze eta laguntza plana ikastegiko IKTetan.

Arestian aipatu bezala, irakasleriaren aldakortasuna medio, plantillaren osotasunera heldu dadin, IKT tresneei eta baliabideei buruzko informazioaren sistematizazioa ezinbestekotzat jotzen da; zentzu honetan, honako plan hau tresna hauei buruzko agiri osoena gertatzen da.

Ikastegiaren dinamikan IKT tresna berri bat ezartzen den bakoitzean, haren erabilgarritasunaren berri ematen zaie hartzzaileei, bere ezarpen progresiboa faboratuz, interesatu guztien egokitzapen eta ikaskuntza prozesua ahalbideratzeko.

### 10.2 Eskuduntza digitalak eskuratzeko prestakuntza-ildoak

Oinarrizko software ofimatikoaren formakuntzaz, hodei-zerbitzuen zein posta elektronikoen erabileraz gain, plan honetan aipatutako honako beste zenbait IKT tresnen ezaguera ere oso interesgarria gertatzen da irakasleentzat:

- Audio eta bideo edizioaren softwarearen erabilerari buruzko formakuntza, bai ikasgeletan aplikatzeko baita ebaluaketa-kontu zein material didaktikoa lortzeko.
- Office 365 aren erabilerari buruzko prestakuntza oso gomendagarria litzateke dokumentuak, memoriak, taulak, sekuentziak... betetzeko.
- PDF, Word, JPG... bihurtzaileen ezaguera eta erabilpena, Word dokumentu batetan, adibidez, partitura eredu bat sartzeko.
- Partitura editoreen erabilera.
- Midi bihurtzaile programak, musika akonpañamendua CDaren bitartez denean, afinazioan eragin ezaz, abiadura arindu zein moteltzea helburu, esaterako.
- PC edo tableta bati mikrofono digital bat konektatzeak dakartzan posibilitateen ezagutza: grabaketak, online klaseak edo eta batzar semipresentzialak egiteko aukerak esaterako.

## 11. IKT PLANAREN EBALUAKETA

### 11.1 Ebaluaketa eragileak

IKT planaren ebaluaketa Zuzendaritzaren esku eta ardurapean egongo da; hala ere Eskola Kontseilutik, Klaustroaren eskutik edo eta Hezkuntza Komunitateko edozein kideengandik -IKTon erabiltzaile diren aldetik- jaso daitezkeen iradokizun eta ekarpenetara arras zabalik egongo da.

### 11.2 Ebaluaketa prozedura

Ikastegiko IKT tresna eta baliabide desberdinen benetako erabilpenaren azterketa praktikoaren bidez, ebaluaketa etengabekoa eta integratzailea izango da: azterketak batetik, baliabide hauen erabilpenean zeintzuk nagusitu diren erakutsiko du, beraien integratze, formakuntza eta difusioa indartu beharko delarik ondorioz eta bestetik, zeintzuk izan duten erabilpen urriagoa, hala izanik berrantolatu, hobetu edo eta baztertuak izan daitezen.

### 11.3 Ebaluaketa adierazleak

IKT planaren ebaluaketarako, hurrengo adierazleak erabiliko dira:

- Erabiltzaile kopurua: adierazle honek hezkuntza komunitatearen kide desberdinen arteko ezarpen mailaren ezagutza objetiboa ahalbideratuko du.
- Ikastegiko web orrialdearen erabilpenari buruzko datuak (bisiten nondik-norakoak, orrialde edo esteka bisitatuenak, edo beste edozein erabilpen adierazle).
- Erabiltzaileen balorazio inkestak.

### 11.4 Ebaluaketaren denboralizazioa

Honako IKT plan hau, Zuzendaritza Taldearen mandatuaren aldaketarekin batera aztertuko da sakon; hala ere, ikasturte hasieran berrikusiko da urtero, beti ere aurreko ikasturtean antzemandako ekarpen eta beharrianen arabera jokatzuz.

Ondarroan 2021eko uztailaren 16an



Zuzendaria